




JOXEPA IÑAXI ELIZEGIK SAGARDOTEGIAN BOTATAKO ERANTZUNAK



Joxepa Iñaxi Elizegi
(1864 - Asteasu, Gipuzkoa)

Doinua: Maritxu nora zoaz I

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria:

Antonio Zavala. 1965. Pello Errotaren itzala. Auspoa. 140 or.

Antonio Zavala. 1963. Pello Errotaren bizitza bere alabak
kontatua. Auspoa. 102 or.

Asteasuko Elizegitarren etxean bertsotan egiten zuten senide askok:

Pello Errota, Sabina eta Juan Kruz neba-arrebek bezalaxe, baita Pello Errotaren seme-alabek ere:
Miel Antonek, Mikela Zintzarrik eta Joxepa Iñaxik.

Hirugarren belaunaldiak ere jarraitu zion sokari!

Etxean (errotan bizi ziren) sagardorik
ez zuten egiten, eta sagardotegira
sartzen zen Joxepa Iñaxi, etxerako bila.
Behin, sagardotegira enkargua egitera sartu
zenean, bertsoa kantatzeko eskean hasi
zitzaizkion, eta halaxe bota zien.

Beste batean ere sagardotegian sartu da
Joxepa Iñaxi eta han ikusi ditu bi gizon,
bertsotan, bere aita "Pello Errota"ri buruz.
Eta halaxe bota die Joxepa Iñaxik:

Gogorikan ez daukat
lotsa **bestetikan**
horra emakumia
naizen **partetikan**
toriatzen* banazue
aldamenetikan
ederrak aditzeko
zaute **nigandikan**.

Bertsotan ari dira
bi **galtza-jario***
bat da Astiarra ta
bestia **Antonio**
jendia hemen dago
hoik dila **medio**
aita guriarentzat
ez dute **balio!**

